



XII. Legegintzaldia - XII Legislatura
2020-2024

GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailak 22
Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2024

Lehendakaritza

IÑIGO URKULLU LEHENDAKARIAK EUSKARRI ESTRATEGIAREN 2023KO MEMORIA ETA 2024KO LEHENTASUNEN AGENDA AURKEZTU DITU GAUR GOBERNU KONTSEILUAN

- Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta EUDELeK, 2018tik, zaurgarritasun-egoeran adauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko Mahaia partekatzen dute
- Jarduera-planak 7 lehentasun bultzatzen ditu eta 23 ekimen jasotzen ditu, guztiak 2023an gauzatze-maila desberdinetan garatu direnak
- Dokumentuak hobetzeko bi eremu identifikatzen ditu: proiektuen harmonizazioa eta sailen eta erakundeen arteko sarearen funtzionamendua
- Era berean, etorkizunerako proiektio garrantzitsua duten hiru lorpen handi nabarmentzen dira: Gobernantza, Koordinazioa eta Zehaztapena
- Euskarri Estrategia jardunbide egokia da zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen errealitate konplexuari heltzeko
- 2024ko bigarren seihilekoari begira, 2024-2027 plangintza estrategikoko dokumentu berri bat egitea eta onartzea planteatu da

2018az geroztik, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta EUDELeK baterako lana hasi zuten adingabeen egoerari erantzuteko estrategia bat partekatzeko, bai familia-erreferenterik gabeko migratzaileei, bai kalteberatasun-egoeran dauden bertakoei.

2021eko ekainaren 15ean, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta EUDELeK “Euskarri Erakundearteko Adierazpena” aurkeztu eta Euskarri Estrategiaren Erakundearteko Mahaia eratu zuten formalki, zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen gizarteratzea eta laneratzea errazteko.

Harrezkero, urtero, urteko jarduketa Agenda bat onartzen da. Agenda horrek aurreko urtean egindako lanaren memoria egiten du, eta hurrengo ekitaldiko lehentasunak zehazten ditu. Iñigo Urkullu Lehendakariak Euskarri Estrategiaren 2023ko Memoria eta 2024ko Lehentasunen Agenda aurkeztu ditu gaur Gobernu Kontseiluan.

2023ko Memoria

Mahaiaren Lan-agenda zazpi lehentasun-ardatzen inguruan egituratzen da, eta ardatz horiei lan-proposamen desberdinak lotzen zaizkie (ikus eranskina). Zazpi lehentasun horiek honako hauek dira:

1. lehentasuna. Emantzipazio-prozesuak sustatzea.
2. lehentasuna. Berrikuntza etxe-ereduetan, tutoretzan edo mentoretzan.
3. lehentasuna. Tokiko hizkuntzak ikastea.
4. lehentasuna. Lanbide-esperientzia egiaztatzea.

5. lehenetasuna. Prestakuntza-prozesu egokituak.
6. lehenetasuna. Euskadin bizi diren eta lan-baimenik ez duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak garatzea.
7. lehenetasuna. Erakundeen arteko erantzunkidetasuna.

Joan den otsailaren 1ean, Euskarri Mahaia 2023ko Memoria eta 2024ko Lehenetasunen Agenda onartu zituen. Ondorioen atalean, nabarmendu du aurreikusitako 23 ekimenetatik guztiak 2023an garatu direla, gauzatze-maila desberdinetan.

Hobetu beharreko eremua

Balorazio positibo hori ez da oztopo bi hobekuntza-eremu identifikatzeko. Lehenik eta behin, kideen funtzionamenduaren eta koordinazioaren nahiz proiektuen eta jardueren harmonizazioa optimizatzea. Bigarrenik, sail edo erakunde bakoitzaren dinamika propioek harremanik gabeko funtzionamenduetara bultzatzea ditzaketen inertziak gainditzea.

Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen gizarteratzea eta laneratzeko bezalako gai sentikor eta transbertsal batean, funtsezkoa da sarean funtzionatzea. Hau da, gobernantza partekatua, ahalik eta aukera gehienetara bideratua.

Euskarri Estrategiaren Erakundearteko Koordinazio Mahaia harmonizaziorako eta sare-funtzionamendurako helburu bikoitz horretan lan egiten duen proiektu bat da. Etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik, egokia da hasitako bidea optimizatzea.

Lorpen aipagarriak

Halaber, hiru lorpen handi nabarmendu behar dira, etorkizuneko proiektio garrantzitsuarekin finkatzen direnak: Gobernantza, Koordinazioa eta Zehaztasuna.

-Gobernantza. Sailen arteko eta erakundeen arteko lankidetzaren gobernantzako eredu bat taxutu da (partaidetza publikoko, pribatuko eta gizarte zibileko sektore-espazioak barne hartzen dituena), modu arinean funtzionatu duena.

-Koordinazioa. Koordinazio- eta eztabaida-espazio partekatuak eratu ditu, informazio- eta lankidetzaren fluxuak hobetzen lagundu dutenak. Azken batean, koordinazioak emaitzen eraginkortasuna hobetzea ekarri du.

-Zehaztasuna. Zeharkako lan-irizpide bat bultzatu da, mahaiaren funtzionamendua *zehatzaren metodologiarekin* eta etengabe ebaluatzen diren proiektu eta helburu argietan islatzearekin lotzen duena.

Laburbilduz, azken urteotan izandako zailtasunak eta ezbeharrak gorabehera, Euskarri Estrategiaren Erakundearteko Koordinazio Mahaia jardunbide egokia da zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen errealitateak adierazten duen problematika konplexuari eta poliedrikoari heltzeko. Hori da, ziurrenik, esperientzia horrek 2023ko amaierara arte uzten duen ondare nagusia.

2024ko Lehenetasunen Agenda

2024ko lan-plangintzari begira, helburua da Euskarri Estrategiaren sailarteko eta erakundearteko dinamizazio-, koordinazio- eta bultzada-funtzioak garatzen

jarraitzea, bai eta zehaztasun-irizpide batekin ezarritako konpromisoak, helburuak eta egutegiak zorrotz betetzen jarraitzea ere.

2024ko bigarren seihilekoari begira, 2024-2027 plangintza estrategikoko dokumentu berri bat egitea eta onartzea da helburua.

Eranskina. Euskarri Estrategiaren lehentasunak eta jarduketa-programak

Lehentasuna	Ekimenak
1. lehentasuna. Emantzipazio-prozesuak sustatzea.	<p>1. Trapezistak programa, Eusko Jaurlaritzaren programa, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden gazteei laguntzeko.</p> <p>2. Hegan programa (Arabako Foru Aldundia), Gazte on programa eta Gazteak helduarora igarotzeko arreta-zerbitzua (Bizkaiko Foru Aldundia).</p> <p>3. Eusko Jaurlaritzaren lagapen-hitzarmen berriak tutoretzapean egondako gazteek partekatutako etxebizitzetan.</p> <p>4. Gaztelagun, alokairurako laguntzak eskuratzeko programa.</p>
2. lehentasuna. Berrikuntza etxe-, tutoretza- edo mentoretza-ereduetan.	<p>5. Emantzipazio Aurreko eta Emantzipazioko Aukera Programa (Arabako Foru Aldundia), GazteOn SareLan Programa (Gipuzkoako Foru Aldundia)</p> <p>6. Eusko Jaurlaritzaren mentoretza-programa, Urretxindorrek.</p>
3. lehentasuna. Tokiko hizkuntzak ikastea.	<p>7. Migratzaile gazteei egokitutako prestakuntza-ibilbideak.</p> <p>8. HHIetarako sarbidea gazte migratzaileentzat.</p> <p>9. Gaikuntza digitaleko gelak HHI guztietan.</p> <p>10. Programa Pilotua Bilboko HHIn.</p> <p>11. Harrera, Ongi Etorri Programa.</p> <p>12. Bideberri, Zehar programa pilotua.</p>
4. lehentasuna. Lan-esperientzia egiaztatzea.	<p>13. Oinarrizko LH birformulatzeko prozesua aplikatzea.</p> <p>14. Gaitasunak egiaztatzeko gailua, eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeko zailtasunak dituztenentzat.</p>
5. lehentasuna. Prestakuntza-prozesu egokituak.	<p>15. Tutoretzapeko gazteen eta tutoretzapean egondako gazteen laneratzea erraztuko duten tituluak egiaztatzeko prestakuntza-ibilbideak.</p>
6. lehentasuna. Euskadin bizi diren eta lan-baimenik ez duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzekeko ibilbideak garatzea.	<p>16. Lan-aurreko egoeran dauden etorkinak gizarteratzen eta laneratzen eta erregularizatzen laguntzeko esperientzia pilotuak.</p> <p>17. Laneratzekeko enpresetan sartzea erraztuko duen eta gizarteratzeko ibilbideak garatzen lagunduko duen Dekretua.</p> <p>18. Gizarte- eta lan-arriskuko edo -bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako ibilbide mistoak.</p> <p>19. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea.</p>
7. lehentasuna. Erakundeen arteko erantzukidetasuna.	<p>20. Migrazioaren eta asiloaren arloko transferentziarako eta lan-baimenak emateko eskumenerako kudeaketa.</p> <p>21. Lana aldi baterako mugatuta duten gazteen egoitza-espeditenteen ebazpena arintzeko koordinazioa.</p> <p>22. Erantzukidetasun-printzipioaren aplikazioa sustatzeko Share Proposamena bultzatzea, estatu eta autonomia arteko esparruan.</p> <p>23. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eta foru-aldundien arteko lantaldea, Share Proposamenari buruz.</p>

Lehendakaritza

ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIAREN 2023KO URTEKO JARRAIPEN MEMORIA AURKEZTU DA

- Aurreikusitako 36 jardueretatik 29k aurreikusitako egutegia bete dute, 4k 2024an garatuko dira eta 3k ez zuten aurreikuspenik 2023rako
- 2023an, 230.464.870 euro metatu dira Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia bultzatzeko
- 2024an, Estrategiaren tarteko lehen ebaluazio-prozesuari ekin behar zaio. Horretarako, dokumentuak lau optimizazio-eremu iradokitzen ditu
- Hasieran aurreikusitako lau trakzio-proiektuak amaitu ondoren, palanka-jarduketaren bloke berri bat identifikatzea iradokitzen da
- Bigarren iradokizunaren arabera, Euskadiko giza kapitala indartzea eta ordeztzea izango da Estrategiaren lehentasunezko jarduera-ardatz berria
- Migrazioaren arloan jarduteko bi eremuak indartzea eta garatzea planteatzen da: (1) *erakartzeko* eta *ekartzeko*, eta (2) *hartzeko* eta *integratzeko* gaitasuna
- Azkenik, Estrategiaren erakundearteko dimentsioa bitarteko ebaluazioaren unean zabaltzeko aukera aztertzea iradokitzen da

2022ko ekainaren 21ean, Gobernu Kontseiluak Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia onartu zuen; guztira, 36 jarduketara proiektatzen ditu. 35. jarduketaren arabera, urteko jarraipen Memoriak egin beharko dira. Iñigo Urkullu Lehendakariak konpromiso horri erantzuten dion eta Estrategiaren 36 jarduketak banan-banan berrikusten dituen dokumentua aurkeztu du gaur Gobernu Kontseiluan.

•Helburuen betetze-mailaren balantzea lehen 18 hilabeteetan

Helburuen eta egutegiaren betetze-maila oso altua da. Estrategiaren aurreikusitako 36 jardueretatik 3k ez zuten helbururik 2023ko amaiera baino lehen. Gainerako 33etatik, 29tan bete da egutegia. Beste 4 jarduketak 2024ra atzeratu dira, baina aktibatuta edo prestaketa-fasean daude. Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia bultzatzeko 2023an metatutako aurrekontua 230.464.870 eurokoa izan da.

Balantze on horrek erakusten du Estrategia hau eta haren lan-plangintza sailen artean jarduteko tresna ona izaten ari direla. Estrategiak berak aurreikusten duen jarraipen-sistemaren barruan, balioa eman behar zaio 2022ko ekainetik lau aldiz bildu den Sailarteko Mahaiaren baliagarritasunari. 2024an ekin behar zaio Estrategiaren tarteko lehen ebaluazio-prozesuari.

•2024ko amaierako tarteko ebaluaziorako optimizazio-iradokizunak

Dokumentuaren azken zatian, Estrategia optimizatzeko lau eremu iradokitzen dira, tarteko ebaluazioa baliatuz ezar daitezkeenak.

I. Trakzio-proiektuen bloke berri bat identifikatzea

Estrategiak 4 jarduera definitzen ditu, trakzio-proiektu gisa. Horietako hiru 2023an amaituta daude (hilean 200 euroko zuzeneko laguntza, seme edo alaba bakoitzeko; doakotasuna, haur-eskoletako 0-2 urteko etapan; eta ikuspegi demografikoa txertatzea araudiaren prestaketan), eta laugarrena 2024an egongo da (gazteen ekintzailatza- eta prestakuntza-proiektuetarako mailegu-programa).

Lehenengo iradokizuna da trakzio-proiektuen bloke berri bat identifikatzea, datozen urteetan Estrategiaren potentziala indartzeko eta biderkatzeko.

II. Giza kapitalaren ordezkapena lehentasunezko jarduera-ardatz berri gisa jartzea

Estrategiak lehentasunezko lau jarduera-ardatz ditu: I: Emantzipazioa; II: Familia-proiektuen eraikuntza; III: Adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzea; eta IV: Migranteen gizarteratzea. Laugarren ardatz horretan, 26. jarduketak talentua atxikitze, garatzeko eta erakartzeko programa bat jasotzen du. Iradokizun horrek planteatzen du Euskadiko giza kapitala indartzea eta ordezkatzea lehentasunezko jarduera-ardatz berri gisa ezartzea.

Lan-merkatuak gero eta zailtasun handiagoak ditu belaunaldien arteko erreleboan eta lan-eskuaren defizitean. Lehendakaritzak koordinatuta, 2023an, Orkestra Institutuak talentua atxikitze, garatzeko eta erakartzeko buruzko dokumentu bat egin du, iradokizun horren oinarri izan daitekeena.

III. Migrazioaren arloko ardatza indartzea, garatzea eta zehaztea

Iradokizun hori osagarria da eta aurrekoarekin lotzen da. Migratzaileen ekarpena gero eta garrantzitsuagoa da, bai jaiotza-tasaren balantzea hobetzeko egiten duten ekarpenegatik, bai lan-merkatuan eskulana berritzeko birjartzeagatik, bai zerbitzu publikoei eusten laguntzen dutelako. Etorkizunean, bai berehala, bai bitarteko gisa, Euskadik migratzaile gehiago beharko ditu.

Ikuspegi horrekin, bi dira helburu hori lortzeko esparru nagusiak: (1) *erakartzeko* eta *ekartzeko* gaitasuna, eta (2) *hartzeko* eta *integratzeko* gaitasuna. Bi helburu horiek identifikatuta daude jada "Estrategiaren 25. jarduketan: transferentzia lehenestea asilo-migrazioaren arloan, eta migratzaileak hartzeko eta integratzeko eredia diseinatzea". Estrategiak, 2024tik aurrera, xehetasun handiagoz txerta ditzake tresna horien edukia eta garrantzia.

IV. Estrategiaren erakundearteko dimentsioa zabaltzea

2030 Agenda Euskadi Foroa eta, zehazki, Gobernantzako Lantaldea eta Eraldaketa Sozialaren Lantaldea Estrategiaren garapena partekatze eta bateratzeko guneak izan dira.

Puntu honetan, erronka demografikoari erantzuteko orduan Estrategiaren erakundearteko dimentsioa zabaltzeko aukera aztertzeko Estrategiaren ebaluazioa aukera izan dadila iradokitzen da. Iradokizun hori gogoeta partekatu batean oinarritzen da: erantzun hori herri-helburu estrategikoa da, datozen hamarkadetako ikuspegi garrantzitsuenetako bat, zalantzarik gabe.

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK AURTENGO ARAU-PLANA ONARTU DU

- **Plana Irekia gardentasun-atarian argitaratuko da, herritarren informazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea bermatzeko**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran 2024rako aurreikusitako Urteko Araugintza Plana onartu du. Planak jasotzen ditu aurten Jaurlaritzako sail bakoitzak Gobernu Kontseiluan onartzeko aurkeztuko dituen arau-ekimenak (Lege-aurreproiektuak eta Dekretuak).

Kontuan izan behar da 2024a hauteskunde-urtea dela; beraz, Urteko Araugintza Plan hau onartzen da, kalterik egin gabe XIII. Legegintzaldiko gobernu berriak beharrezkotzat jo ditzakeen balizko aldaketa eta egokitzapenei.

Plana **Irekia** gardentasun-atarian argitaratuko da, herritarren beharrezko informazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea bermatzeko.

2024ko URTEKO ARAUGINTZA PLANA

1. LEHENDAKARITZA

- Kanpoko Euskal Komunitateari buruzko Lege-aurreproiektua.
- Dekretu-proiektua, Kanpoko Euskal Komunitatearentzako laguntza-laguntzei buruzkoa.

2. SEGURTASUN SAILA

- Dekretu-Proiektua, Udaltzaingoak defendatzeko eta hornitzeko baliabide teknikoak arautzeko dena.
- Dekretu-Proiektua, Euskalmet – Agencia Vasca de Meteorología SA» sozietate anónimo publikoa sortzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Zibersegurtasunaren Euskal Agentziaren estatutuak onartzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretua aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, poliziaren ugikortasunari buruzkoa.
- Dekretu-Proiektua, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziiplina Araudia onartzen duen maiatzaren 3ko 79/1994 Dekretua aldatzeko dena.

3. LAN ETA ENPLEGU SAILA

- Dekretu-proiektua, Euskadiko kooperatiben erreglamendua onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren Erreglamendua onartzen duen Dekretua aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegu-agentzien artean bitartekotza- eta enplegu-zerbitzua emateko irekitako akordioak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Inklusiorako euskal kontseilua arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradunentzako enplegurako pizgarriei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzeko dena.
- 5/2024 Dekretua, urtarrilaren 23koa, Inklusiorako Erakundearteko Batzordea arautzen duena.
- Dekretua, 2024ko otsailaren 13koa, Kooperatiben arloko ikuskapenari eta zehapen-prozedurari buruzkoa.

4. GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNU SAILA

- Lege-aurreproiektua, euskal ondare-zuzenbidearen arloko berezitasunei eta familia-enpresaren eta ondarearen defentsari buruzkoa.
- Lege-aurreproiektua, Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Bilbao izeneko elkargoa kentzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzkoa.
- Dekretu-Proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeen Erregistroa arautzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroaren Erregelamendua onartzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredu arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretua aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Ingurumen Adituen Elkargo Profesionala sortzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Colegio Profesional de Criminología de Euskadi - Kriminologia Euskadiko Elkargo Ofiziala sortzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Administrazioetako funtzionarioen karrera profesional horizontala eta Euskal Sektore Publikoko langileen jarduna ebaluatzeko sistema arautzen dituen dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio zuzendari publiko profesionalen araubide juridikoa arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko eta funtzionarioak hautatzeko araudia onartzen duena.

5. EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

- Dekretu-proiektua, segurtasun industrialaren arloko profesionalen kualifikazioari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko energia berriztagarrien lurralde-plan sektoriala onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, AEM-01 igogailuei buruzko Jarraibide Tekniko Osagarria garatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, portuetako Udal Kontseiluak sortzeari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, nekazaritzatik eratorritako nitratoek urak kutsatzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudia eguneratu eta bateratzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategien Erregistroa eta ustiapen-koaderno elektronikoa arautzen dituen dena, eta ustiapen-koadernoari buruzko 203/2011 Dekretua eta 2014ko azaroaren 18ko Agindua indargabetzen dituen dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan abereen ongizaterako eta abeltzaintzako ustiategien eta instalazioen antolamendu zooteknikorako baldintza higieniko sanitarioak arautzen duena.
- Esparru-dekretu proiektua, Euskadin Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) programa estrategikoa garatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan angularen arrantza profesionala arautzeko dena eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskadi Gastronomia sariak arautzeko dena.
- Dekretu-Proiektua, ehiza-lizentziari eta ehizatze gaitasunari buruzko uztailaren 29ko 160/2014 Dekretua aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan jendaurreko ikuskizunetan edo jolasjardueretan parte hartzen duten baina oraindik ongizatea arautu gabe duten animalien ongizatea arautzeko dena.
- Dekretu-proiektua, nekazaritza eta elikagaigintza industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko, eta euskal autonomia erkidegoko nekazaritza eta

elikagaigintza industriren erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dena.

- Dekretu-proiektua, Euskadiko Arraza Autoktonoen Katalogo Ofizialean ondare genetiko eta etnologiko gisa aitortutako arrazak izendatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, erlezaintzaren antolamenduari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, etxeko hondakinen balorizazio energetikoaren ondoriozko zepak balorizatzeko jardueri aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Aitzkorri Arazko Naturagune Babestuko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena eta Parke Naturalaren eta haren babes-eremu periferikoaren mugak aldatzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Egitamua aldatzeko dena.
- Dekretua eta Agindua aldatzea, Eraikuntza- eta eraispin-hondakinei eta lurra berreraultzeko eta balorizatzeko irizpideei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.
- Gasteizko Mendi Garaiak (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) handitzeko eta haren helburuak eta kontserbazio-neurriak egokitu eta eguneratzeko izendapen-dekretua aldatzea.
- Dekretu-proiektua, Genetikoki Eraldatutako Organismoak kontrolatzeko Biosegurtasunaren Euskal Batzordea sortzen duena, genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzeko eta nahita askatzeko baimenak komunikatzeko eta eskatzeko prozedura arautzen duena eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen Baimen eta Komunikazioen Erregistroa sortzen duena.

6. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina.
- Dekretu-proiektua, 2024ko Urteko Estatistika Programari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, 2025eko Urteko Estatistika Programarena.
- Dekretu-proiektua, Jaurlaritzako sailen estatistika-organo espezifikoak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Uraren kanonaren erregelamendua aldatzeko (229/2021 Dekretua, azaroaren 2koa, Uraren Kanonaren Erregelamendua onartzen duena).
- Dekretu-proiektua, Finantzen Euskal Institutuaren estatutuak onartzeko dena.
- Dekretu-proiektua, dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, EAEko higiezin kredituko bitartekarien eta higiezin mailegu-emaielen baimena eta erregistroa eta horiek gainbegiratzeko eta zehatzeko eginkizunak arautzeko dena.
- 6/2024 Dekretua, urtarrilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru- eta berraseguru-banatzailen Administrazio-erregistroa sortu eta arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera gainbegiratzeko dena.
- Dekretua, 2024ko otsailaren 13koa, brondatezko Gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko zenbait dekretu aldatzekoa.

7. HEZKUNTZA SAILA

- Dekretu-proiektua, 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, aldatzeko dena (289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomi Elkartearen "Musika-Eskola" direlako arautu gabeko berriazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena).
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez arautzen baita zer prozedurari jarraituko zaion Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan araubide bereziko kirol-ikasketak emango dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko eta emandako baimenak aldatu eta azkentzeko dena.
- Dekretu proiektua, unibertsitatez kanpoko irakas sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundearen egitura eta funtzioak arautzen dituen Dekretuaren aldaketarako dena.

- Dekretu-proiektua, hezkuntza-sistemari laguntzeko oinarrizko egiturak eguneratzen dituen, horien antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.
- Dekretu- proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleek hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan aniztasunari eman beharreko erantzunari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Ingurune estrategikoen bultzatze eta garatzea “TKGUNE” Programaren erregulazioaren bitartez.
- Dekretu-proiektua, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, 46/2014 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen dituen, aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Ikaskuntza Birtualen eta Digitalizatuen Lanbide Heziketako Zentro Integratua sortzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Itunpeko Ikastetxe Pribatuetako Hezkuntza-Itunen Araubidea eta Ordainketa Eskuordetuaren Sistema arautzen dituen.
- Dekretu-proiektua, 218/1997 Dekretua, zeinaren bidez urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Ordenazio Orokorreko Lege Organikoari dagozkion titulu akademiko eta profesional ez unibertsitarioen erregistroa sortzen duena, aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Musikeneko instalazioen erabilera arautzen duena, Musikeneko urteko programazioetan sartzen ez diren jardueretarako.
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez sei espezializazio-ikastaroren curriculumak ezartzen baitira (Eraikinen Informazioaren Modelaketa [BIM], 5G Sareen Inplementazioa, Trenbideetako Señaleztapen- eta Telekomunikazio-sistemak, Audiodeskribapena eta Azpтитulazioa, Adimen Artifiziala eta Big Data, eta Industria-mantentzearen Digitalizazioa), Euskal Autonomia Erkidegoan emateko.

8. LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

- Dekretu-proiektua, hirigintza estandarrak arautzen dituen.
- Dekretu-proiektua, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzako, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko hirigintza eta etxebizitzarako topagunearen osaera, eskumenak eta funtzionamendu-arautzen dituen.

9. OSASUN SAILA

- Dekretu-proiektua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren menpeko zerbitzuerakundeetako profesionalen garapen profesionala arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Onkologikoa osasun-zentroa titulartasun publikoko baliabide gisa integratzeko baldintzak ezartzen dituen.
- Dekretu-proiektua, Osasun Publikoaren Euskal Erakundearen estatutuak onartzen dituen.
- Dekretu-proiektua, Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren egitura, antolaketa, eginkizunak eta osaera ezartzen dituen.
- Dekretu-proiektua, Osasun Saileko Aholku Batzordeen araubideari buruzko maiatzaren 24ko 121/2005 Dekretua aldatzeko edo ordeztzeko dena.
- Dekretu-proiektua, erabilera kolektiboko igerilekuen osasun-araudia onartzen duen otsailaren 18ko 32/2003 Dekretua aldatzeko edo ordeztzeko dena.
- Dekretu-proiektua, abuztuaren 31ko 319/1999 Dekretua, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortu eta hura egiaztatzeko sistema arautzen duena, aldatzeko.
- Dekretu-proiektua, adikzioei buruzko informazio-sistema sortzen duena.
- Dekretu-proiektua, farmazia-bulegoetako nutrizio- eta dietetika-atala arautzeko dena.
- 9/2024 Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa eta aurretiazko borondateen agiriak ematea arautzen duen dekretua.

10. BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

- Lege-aurreproiektua, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, etxeko indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzuari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, espetxeratuei, baldintzapean askatutako presoiei eta senideei laguntzak ematekoa.
- Dekretu-proiektua, Transexualen dokumentazio administratiboa arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua aldatzekoa.
- Dekretu-proiektua, Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretua edo amatasun- eta aitatasun-baimenak 18 astera luzatzeko eszedentziarako laguntzen dekretu berria aldatzeko dena.

11. KULTURA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KIROLA SAILA

- Dekretu-proiektua, Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasunen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa sortzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseiluaren osarari, antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentuak Balioesteko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordearen (COVASADE) funtzionamenduari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Sistemaren Erregelamendua onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan Lege Gordailua kudeatzeko irailaren 10eko 139/2019 Dekretua aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, kultura-ondasun immaterialen EAEko inbentarioa egiteko prozesuari, egiturari eta eskuragarritasunari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzen duen, urriaren 16ko, 222/2012 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Goi-mailako Kirolari buruzkoa.

12. TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

- Dekretu-proiektua, Euskal kultura ondareko elementu katalogatuen barneko turismo-gidariaren jarduna gaitzeko dena.
- Dekretu-proiektua, bigarren eskuko ibilgailuen salerosketan kontsumitzaileen informazio-eskubidea arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratzen ez duten irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuetako erabiltzaileen informaziorako eta interes ekonomikoen babeserako eskubidea arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko 101/2018 Dekretua aldatzen duena (landa-ingurunea).
- Dekretu-proiektua, kontsumoko erreklamazio-orriari eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexa, erreklamazio eta salaketei erantzuteko prozedurari buruzko uztailaren 1eko 142/2014 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko merkatarien elkarteen erregistroari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretua aldatzen duena.

Lehendakaritza

JAURLARITZAK 1,2 MILIOI EUROREKIN FINANTZATUKO DU I+G-KO ZEHARKAKO TRAKZIO PROIEKTU KOLABORATIBOEN DISEINUA

- **Gobernu Kontseiluak Zahartze Osasuntsuaren, Mugikortasun Elekrikoaren eta Ekonomia Zirkularraren arloko Trakzio Proiektuetarako laguntza-programaren 2024ko deialdia onartu du**
- **Trakzio proiektuak erakunde eskatzaileek aurkeztutako proiektuen integrazioaren emaitza izan daitezke**

Gobernu Kontseiluak, 2024ko ekitaldirako, Ikerketa eta Garapeneko Zeharkako trakzio proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntza-programaren deialdia onartu du, Euskadi 2030 ZTBPre Zeharkako Trakzio Ekimenen esparruan. Laguntza horien bigarren deialdia da, 2023ko ekitaldian onartutakoaren ondoren.

Deialdiko laguntzak finantzatzeko 1.200.000 euro bideratuko dira, Lehendakaritzako Berrikuntza Funtsetik, eta kopuru hori zati berdinetan banatuko da zeharkako trakzio ekimenei dagozkien eta diruz lagunduko diren hiru lerroen artean:

- a) Zahartze Osasuntsua: 400.000 euro.
- b) Mugikortasun Elekrikoa: 400.000 euro.
- c) Ekonomia Zirkularra: 400.000 euro.

Berritasun gisa, laguntzak, Trakzio proiektuak diseinatzeko fasea bakarrik finantzatzera bideratuta daude, eta, gainera, aurkezten diren hainbat eskabide integratzearen emaitza izan daitezke.

Laguntzak gehienez ere 25.000 eurokoak izango dira eskaera bakoitzeko, eta mota horretako proiektuak gidatzeko gaitasuna duten erakundeei zuzenduko zaizkie, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile zientifiko-teknologikoak, klusterren antolakunde dinamizatzailerak, enpresak, elkarte edo fundazio gisa eratutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta erakunde eta sozietate publikoak barne.

Ebaluatu ahal izateko eta dirulaguntza jaso ahal izateko, aurkezten diren proiektuek gutxieneko baldintza batzuk bete beharko dituzte beren gaikako irismenari, guztizko aurrekontuari eta partehartzen duten erakundeen gutxieneko kopuruari dagokienez, laguntza programak arautzen duen [urriaren 11-ko 118/2022ko dekretuan](#) agertzen den bezala.

Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2024ko apirilaren 30ean amaituz.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 22,8 MILIOI EURO BIDERATU DITU BARANDIARAN INSTITUTUAREN ERAIKIN BERRIA EGITEKO, LEIOAN

- **Institutu berriak eraikin bakarrean batuko ditu egun ikasketak bitan egiten ari diren ikasleak**
- **DBH-ko 5 lerro eta Batxilergoko beste 5 izango ditu**
- **Institutuko pista estaliaren estalkia Alzaga ikastetxeko publikoaren aisialdirako gunea eta kirol-gunea ere izango da aldi berean, goragoko kota batean baitago beste ikastetxe hori**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, 22.804.795,58 euroko gastua onartu du, Leioan Jose Miguel Barandiaran Bigarren Hezkuntzako Institutuaren eraikin berria egiteko.

Barandiaran BHIren eraikin berria Sakoneta auzoan dagoen 13.783 metro karratuko lursail batean eraikiko da, institutuaren egungo bi eraikinetako batetik hurre (Barandiaran Behekoa eraikinetik), Alzaga ikastetxe publikoaren eta Leioako osasun-zentroaren artean. Horrela, eraikin bakar eta berri batean bilduko dira, herriaren erdigunean, gaur egun ikasketak bi eraikinetan banatuta egiten ari diren ikasleak, (horietako eraikin bat herrigunetik urrun dago, Santsoenea auzoan).

DBH eta Batxilergoa

9.743 metro koadroko azalera eraikia izango duen eraikinak DBHko 5 lerro eta Batxilergoko beste 5 hartuko ditu. Bolumen trinkoa erakusten duen eraikina diseinatu da, soiltasun, ekonomia eta eraginkortasun energetikoaren printzipioei jarraiki. Horretarako, material iraunkorrak bilatu dira, mantentze-lan gutxi eskatzen dutenak. Eraikin luzanga eta lineala izango da, Aldapabarrena kalearen trazadurari jarraitzen diona. Kale horretatik izango du sarrera nagusia. Eraikinaren lerro zuzen hori hautsi egingo da apur bat erdi aldean, aipatutako kaleak pare horretan duen bihurtunera egokitzeko.

Eraikin berriak beheko solairuan eta goiko bi solairuetan banatuko ditu espazio guztiak. Gainera, orube horren maldak aukera eskaintzen du eraikinari sestra azpiko edo erdisotoko solairu zabal bat emateko. Beheko solairuan, besteak beste, administrazio-gunea, zuzendaritza-bulegoak, bilerak egiteko eta erabilera anitzeko gelak, irakasleen gela, liburutegia eta jantokia egongo dira. Goiko bi solairuetan, DBHko eta Batxilergoko gela arruntak kokatuko dira, baita beste gela espezifiko batzuk ere, hala nola laborategiak, musika, marrazketa, informatika edo teknologia gelak. Sestra azpiko solairua aparkalekuetarako, biltegi orokorrerako, aldagelarako edo galdara-gelarako erabiliko da, besteak beste.

A ziurtagiri energetikoa

Eraikuntza-ezaugarriek, erabilitako materialek edo aukeratutako berokuntza eta ur beroko sistemek A energia-ziurtagiria emango diote eraikinari. Isolamendu-geruza bikoitzeko fatxada aireztatuarekin, argon gas-ganberadun beirak erabilia edo zubi termikoen tratamenduari arreta zorrotza eskainita, besteak beste, energiaren arrazoizko erabilera lortuko du ikastetxe honek.

Institutuko ur bero sanitarioa ekoizteko behar izango den energiaren %60 energia berriztagarriaren bidez sortuko da. Horretarako, ur beroa sortuko da teilatuan instalatuko diren bi bero-ponpa aerotermikoren bidez. Berokuntza-zirkuiturako ura sortzeaz ere arduratuko dira ponpa horiek. Gainera, instalazio horren kontsumo elektrikoa eguzki-plakek sortutako energian oinarrituko da.

Gimnasioa eta kirol-pistak

Eraikinaren hegoaldeko ertzean, beheko solairuan, gimnasioa eta aldagelak jarriko dira. Orubearen barrualdean kirol-pista estali bat eta kanpoko beste kirol-pista bat kokatuko dira, berdegune zabalez eta jolaserako espazio libreez gain. Kirolerako eta jolasetarako kanpoko espazio hori ondo orientatua eta ipar-mendebaldeko haizeetatik babestuta geldituko da, tokiaren topografiari inguruko eraikinei esker.

Institutu berria eraikiko den gunek duen desnibel handiari esker, aipatutako kirol-pistaren estalkia, aldi berean, aisialdirako gune eta kirol-gune izango da Altzaga ikastetxe publikoarentzat, goragoko kota batean baitago kokatua beste ikastetxe hori. Horrela, lan hauen bidez, halaber, Altzaga ikastetxe publikoaren kanpoko espazioak 2.360 metro karratu handitzea lortuko da.

Leioako Barandiaran BHIren eraikin berriak izango dituen instalazioen artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

- | | |
|-------------------------|---|
| - DBHko 20 gela | - Kimika laborategia |
| - Batxilergoko 10 gela | - Biologia laborategia |
| - Bikoizketarako 7 gela | - Jantokia eta officea, 338 m ² |
| - Musika gela | - Liburutegia, 127 m ² |
| - Plastika gela | - Erabilera anitzeko gela, 127 m ² |
| - Marrazketa gela | - Gimnasioa, 406 m ² |
| - Informatika gela | - Kirol pista estalia, 1.028 m ² |
| - Teknologia gela | - Kanpoko kirol pista, 2.036 m ² |
| - Fisika laborategia | - Aterpeak, 363 m ² |

Eraikitako azalera, orotara: 9.743 m²

Lanak egiteko epea 22 hilabetekoa izango da. Lan hauetarako gastua Gobernu Kontseiluan onartu ondoren, Hezkuntza Sailak abian jarriko du Leioako Barandiaran Bigarren Hezkuntzako Institutuaren eraikin berria jasotzeko proiektua esleitzeko prozesua.

Hezkuntza

DIRULAGUNTZA ZUZENA OSOTU LANBERRI FUNDAZIOARI

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Osotu Lanbarri Fundazioari 2024rako dirulaguntza zuzen bat ematea. Dirulaguntza hau salbuespenezkoa da eta 517.051,31 euroko kopurua du.

Osotu ikastetxeak eskolatuta dituen ikasleen zati handi bat oso jatorri desberdinetako familietatik dator, eta ahalegin handia egiten du ikasle horiek beren ohiko ingurunetik oso urrun dagoen ikastetxe batean eskolatzeko; beste ikastetxe batzuetan hainbat esperientzia izan ondoren iristen dira ikasleok ikastetxe honetara, eta horietako batzuek Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzte. Alde horretatik, Osotu zentroak eskaintza osagarria eskaintzen du bere hezkuntza-proiektuaren bidez, interes pedagogikoko esperientzia izanik.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

GOBERNU KONTSEILUAK GASTEIZKO UDALAREKIN ALOKAIKURKO 960 ETXEBIZITZA PUBLIKO ERAIKITZEKO HITZARMEN BAT SINATZEA BAIMENDU DU

Gobernu Kontseiluak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu Iñaki Arriolak eskatuta, baimena eman du Gasteizko Udalarekin alokairu-erregimeneko 960 etxebizitza babestu inguru eraikitzea eta, era horretan, herritarrek etxebizitza bat arrazoizko prezioan eskuratzeko dituzten beharrei erantzutera bideratutako hitzarmen bat sinatzeko.

Akordioak aurreko hitzarmenetan jaso ziren baina gauzatu ez ziren 543 etxebizitzaren eraikuntzari ekiten dio berriz, eta datozen urteetan beste 417 etxebizitza sustatzeko Udalaren lurzoru batzuk Eusko Jaurlaritzari doan lagako zaizkiola gaineratzen du.

Lasarte-Oriako Udaletxearekin hitzarmena zuzkidura-bizitokiak eraikitzeko

Bestalde, Gobernu Kontseiluak Lasarte-Oriako Udalarekin alokairuko zuzkidura-bizitokiak eraikitzeko hitzarmen bat sinatzea onartu du. Egungo Maialen Chourraut kiroldegia tokiz aldatuko denez, Udalak lagako dio Eusko Jaurlaritzari doan espazioa –3.069 m²-ko kirol-ekipamenduko partzela– apartamentu horietara bideratzeko.

Etxebizitza Saila arduratuko da plan berezia eta proiektuak idazteaz, kiroldegia eraistez eta eraikin berria eraikitzeko obrak egikaritzeaz.

Bi hitzarmen hauen bidez, 2022-2036 aldiko Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean sektore publiko eta pribatuko 90 eragileren eta hirugarren sektoreko erakundeen artean zehaztutako helburuak bete nahi dira, alokairuko parke publikoa handitzeko eta, era horretan, euskal herritarrek etxebizitza bat arrazoizko prezio batean lortzeko dituzten beharrei erantzuteko.

Osasuna

OSASUN SAILAK HIL HONETAN ATERAKO DU LEHIAKETARA BASURTUKO OSPITALEA HANDITZEKO OBRA

- **Gobernu Kontseiluak 277 milioi euroko finantzaketa gehigarria onartu du gaur, Basurtuko, Usansolo-Galdakaoko eta Donostiako ospitaleak handitzeko**

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2024ko Aurrekontuaren kreditu orokorra 16 milioi euroekin zabaltzeko, diruzaintzako gerakinen kargura. Horrela, Osasun Sailak finantzaketa gehigarria izango du Bilbao-Basurtuko, Donostiako eta Galdakao-Usansoloko Unibertsitate Ospitaleetan kanpo-kontsultetako eraikinak eraikitzeko. Era berean, Osakidetzaaren etorkizuneko konpromisoak 261 milioi eurotan definitzea erabaki da (77M/€ Donostiako Unibertsitate Ospitalean; 88 M/€ Galdakao-Usansoloko Ospitalean eta 96 M/€ Basurtoko Unibertsitate Ospitalean).

Konplexutasun tekniko handiko eta epe luzeko obrak direnez gero, aurrekontu handia behar da, eta ezin zaie finantza-baliabide arruntekin aurre egin. Hori dela eta, 2028ra arteko inbertsio-plan bat planteatzen da, 277 M/€-koa; horietatik 16 milioi 2024ko aurrekontu-ekitaldiari dagozkio eta 261 milioi 2025etik 2028ra bitarteko ekitaldiei.

Hala, 2024. urtean, 10 milioi euro jarriko dira Basurtuko Unibertsitate Ospitalea modernizatzeke eta kanpo-kontsulten eraikin berria eraikitzeke, 5 milioi euro jarriko dira Galdakao-Usansoloko Ospitaleko kanpo-kontsulta berriak eraikitzeke, eta milioi bat euro Donostiako Unibertsitate Ospitaleko kanpo-kontsulten eraikin berria eraikitzeke.

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ondoren, Basurtuko Ospitaleko kanpo-kontsulten eraikinaren obra izango da abian jarriko den lehen lizitazio-lehiaketa. Otsailean edo martxoko lehen egunetan aterako da. Donostia eta Galdakaoko eraikuntzen proiektuak amaitzen ari dira eta espero da obra horien lizitazioa apirilaren hasieran abiaraztea.

OSAKIDETZAREN AZPIEGITURA-PLAN BERRIA

Basurtuko unibertsitate-ospitalea aurten hasiko da kanpo-kontsultetarako eraikin berria eraikitzen (39.000 m²). Eraikin hori bi bloketan banatuko da, eta tratamendu eta probetarako 250 kontsulta eta gela inguru izango ditu, baita prozedura-gelak, erradiologia anbulatorioko eremua eta farmazia-zerbitzua ere. 106 milioi euroko inbertsioa egingo da kanpo-kontsulten eraikin berria eraikitzeke. Eraikina 36 eta 40 hilabete bitartean eraikiko dela kalkulatu da, eta aukera emango du espazioak handitzeko, azpiegiturak hobetzeko, paziente

anbulatorioen arretarako zirkuitu independenteak egiteko eta zentroaren gainerakoan asistentzia-jarduera berrantolatzeko, baita Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko egungo instalazioak modernizatzeko ere.

Bestalde, Osakidetzak 93 milioi euro baino gehiago inbertituko ditu Galdakao-Usansoloko unibertsitate-ospitaleko kanpo-kontsultetarako eraikin berrian. Eraikin horrek 58.000 m²-ko azalera izango du 9 solairutan banatuta. Eraikina 3 eremu handitan bereiziko da. Lehena asistentzia-erabilerarako eremua izango da eta bertan kokatuko dira kanpo-kontsultak, erradiologia ambulatorioa eta farmazia ambulatorioa. Bigarren eremuan, zuzendaritza- eta administrazio-eremuak eta irakaskuntza-gelak egongo dira, eta, azkenik, eraikinak 1.129 plazako aparkaleku handi bat izango du 5 solairutan, egungo aparkatze-arazoari erantzungo diona.

Azkenik, Donostiako Unibertsitate Ospitaleak 78 milioi euroko inbertsioa izango du, eta 36 hilabeteko gauzatze-epea aurreikusi da. Kanpo-kontsultetarako eraikinak 48.000 metro koadroko azalera eraikia izango du, sestra gaineko 5 solairutan banatuta. Batez ere kontsulta-eremura (250 eremu berri baino gehiago pazienteen diagnostikorako eta tratamendurako) eta eguneko ospitale berrira bideratuko da. Gainera, 4 solairu izango ditu sestra azpian. Horietako hiru aparkalekurako izango dira (560 plaza), eta lehenengo soto-solairua erradiologia-eremu baten eta ospitale osorako espazio logistiko handi baten artean banatuko da.

Osasuna

